



INFORMAZIO OHARRA: ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUAREN ARGIBIDEAK

Azaroaren 6ko lehendakariaren 38/2020 DEKRETUaren arabera, zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko

“Taldeko edozein kirol-jarduera eten egiten da, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuetsita daude, eta egin daitezke lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak”.

Hau da txapelketa Profesionala:“

Futboleko Santander eta Smartbank Ligak eta saskibaloiko Endesa Liga (ACB). Baita Liga hauetan parte hartzen duten taldeen nazioarteko lehiaketak ere”.

Hau da Txapelketa erdi-profesionala:

“Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketa ezberdinak eta baita Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketak ere; hauek guztiak kategoria absolutuan.

Atal honetan sartzen dira ere kirol autoktonoen goreneko lehiaketak maila absolutua”.

ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUA ARGITZEA:

- **Azaroaren 6ko 38/2020 Dekretua indarrean sartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra arte egingo diren lehiaketak dira**, dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko federazioaren egutegian argitaratuta daudenak **azaroaren 6ko 38/2020 Dekretua** indarrean sartzen den egunean.
- azaroaren 6ko 38/2020 Dekretua indarrean sartzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra arte egingo diren **lehiaketak dira, dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko federazioaren egutegian argitaratuta daudenak.**
- Son las **competiciones en curso publicadas en el calendario de** la federación Vasca o Estatal correspondiente, a la fecha de la entrada en vigor del *Decreto 38/2020, de 6 de noviembre*, y a celebrar hasta 31 de diciembre de 2020.
 - EZ DIRA ERDI-PROFESIONALTZAT HARTZEN: lehiaketa hasita ez duten kirolariak eta/edo dagozkien Euskal Federazioaren egutegian lehiaketa argitaratuta ez dutenak.
 - EZ DIRA ERDI-PROFESIONALTZAT HARTZEN: egutegian argitaratuta dauden baina 2020rako bertan behera geratu diren lehiaketak dituzten kirolariak.
- **PROFESIONALAK edo ERDI-PROFESIONALAK dira:** AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ESTATUAN EDO NAZIOARTEAN egiten ari diren LEHIAKETA profesionalean edo erdi-profesionalean KATEGORIA ABSOLUTUAN parte hartzen duten beheragoko kategoriako kirolariak.
- KATEGORIA ERDI-PROFESIONALAREN ZIURTAGIRIAK. **Euskal federazioek** bakarrik eman ahal izango dituzte kirolari horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak.
 - Aurreko puntuetan zehaztutako irizpideak betetzen ez dituzten kirolariei ziurtagiriak ematen dizkien federazio orok EZ DU BETEKO 38/2020 Dekretua.
 - Federazio horiek ematen ez dituzten ziurtagiri guztiak EZ DIRA BALIOZKOAK IZANGO; beraz, ziurtagiri horiek ematen dituen erakundeak edo pertsonak EZ DU BETEKO 38/2020 Dekretua.
- PROFESIONALTZAT edo ERDI-PROFESIONALTZAT hartzen ez diren kirolariak **banakako entrenamenduak bakarrik egin ahal izango dituzte bizi diren udalerrian eta ondoko udalerrian.**

Aipatutako azaroaren 6ko 38/2020 Dekretua indarrean dagoen bitartean aplikatuko dira neurri horiek guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 11a

